



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

**2014/2015 denboraldia**

## **7 ZK.DUN ZIRKULARRA**

### **GAZTEEN EUSKAL LIGA**

Euskadiko Futbol Federakundeak Euskal Gazte Liga lehiaketa antolatuko du 2014/15 denboraldian, ondorengoei jarraiki:

#### **1. Parte hartuko duten klubak**

Alaves D.; Amorebieta S.D.; Amurrio C.; Antiguoko K.E. "C"; Begoña S.D.; Danok Bat "C"; Deusto S.D.; Gernika S.D.; Hernani C.D.; Lauro Ikastola C.F.; Lengokoak S.D.; Real Unión C. "B"; Retuerto S.D.; Santutxu F.C.; Sestao River C.; Vasconia C.D.

#### **2. Lehiaketa sistema**

Multzo bakarrean, puntuetara eta itzuli bitan (hogeita hamar jardunalditan, guztira) egingo da lehiaketa, eta Euskadiko Futbol Federakundearen Araudi Orokorreko xedapenak aplikatuko dira.

#### **3. Partiden data eta ordutegiak**

Lehen itzulia: irailaren 7, 14, 21 eta 28; urriaren 5, 12, 19 eta 26; azaroaren 2, 9, 16, 23 eta 30; abenduaren 7 eta 14.

Bigarren itzulia: abenduaren 21; urtarrilaren 4, 11, 18 eta 25; otsailaren 1, 8 eta 15; martxoaren 1, 8, 15, 22 eta 19; apirilaren 12 eta 19.

Partidak larunbat arratsaldera aurreratu ahalko dituzte klub antolatzaileek, 15,30etik aurrera, aurkariaren oniritzia izan gabe ere.

Esan ere ordutegi lerro bat jarri dela, beraz partidak 10,30etatik-13,00etara eta 15,30etatik-18,30etarako bitartean hasiko dira, logikoki lehiatzen duten klubentzako akordioa izan ezik.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

#### **4. Sailkapen ondorioak**

Sailkapeneko 1, 2 eta 3. amaitzen direnak Gazteen Estatuko Ligara igoko dira. Halaber, Gazteen Ohorezko Mailatik federazio honetako talderik jaitziz gero, sortzen diren hutsuneak betetzeko, sailkapeneko hurrengo lekuetan dauden taldeak ere igoko dira maila horretara.

Sailkapenean 13, 14, 15 eta 16. amaituriko taldeak beren lurraldeko ligara jaitziko dira. Halaber, Gazteen Ohorezko Mailatik federazio honetako talderik jaitziz gero, azken sailkapenean postu horien aurretxoan egondako taldeek, behar bestek, maila galduko dute. Egoera honek aipatutako mailan klubak gehiegizkoa suposatzen duenean

Orobat, lurralde ligetan lehenengo postua lorturiko taldeak igoko dira Euskal Ligara, bai eta igoera faseko irabazlea ere. Igoera fasean liga horietako bigarren gertaturikoak lehiatuko dira, hiru batean sistemaren arabera.

#### **5. Ordezpenak**

Partidetan, gehienez bost futbolari ordeztu ahalko dira. Gehienez zazpi balizko ordezko egon ahalko da, eta partida hasi baino lehen, horien izenak eta titularrenak jakin beharko ditu arbitroak.

#### **6. Arbitroak**

Partida jokatzen den lurraldeko federaziokoak izan beharko dute. Lurralde Maila Goreneko arbitroek zuzenduko dituzte partidak.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 3 -

## **7. Diziplina Araudia**

Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Araudiak arautuko du lehiaketa, eta gerta daitezkeen gorabeherak Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina eta Apelazio batzordeek ebatziko dute.

Eta horren berri ematen da, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2014ko irailaren 1n.



JON ANDER GAMBOA AGUIRRE  
Secretario General